



GOBERNU BILERA

**Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak**

CONSEJO DE GOBIERNO

**Dossier de Prensa
Acuerdos destacados**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailak 5

Vitoria-Gasteiz, 5 de septiembre de 2023

Segurtasuna

EUSKO JAURLARITZAK 20.000 EUROREKIN LAGUNTZEN DIE NAZIOARTEKO KIROL-LEHIAKETETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERTZAINEI

- Era horretako lehiaketek, kirolari esker, mundu osoko poliziako agenteen eta suteak itzaltzeko kidegoen arteko esperientziak trukatzea ahalbidetzen dute
- Eusko Jaurlaritzak, Ertzaintzako agenteen parte-hartzea babestuz, segurtasun-zerbitzu publikoen arteko adiskidetasuna eta forma fisiko eta profesional ona mantentzeko motibazioa sustatu nahi ditu

Gobernu Kontseiluak gaur egindako bileran aztertu du Eusko Jaurlaritzaren 20.000 euroko laguntza arautzen duen agindua, mundu osoko poliziako eta suteak itzaltzeko kidegoen artean lehiatzeko antolatzen diren nazioarteko kirol-jokoetan parte hartu nahi duten ertzainen gastuak ordaintzen laguntzeko dena.

Ertzainak munduko jokoetan nahiz Europakoetan lehiatu ohi dira, eta domina ugari lortu dituzte. Helburua da, kirolari esker, mundu osoko polizia-agenteen eta suhiltzaileen artean esperientziak trukatzea segurtasun-zerbitzu publikoen artean adiskidetasuna sustatzeko eta forma fisiko eta profesional onean egoteko motibazioa izateko.

2023, Europako eta munduko jokoan urtea

Munduko jokoak bi urtez behin egiten dira, eta Europakoak, aldiz, urtero. Aurten "[World Police and Fire Games](#)" jokoak Kanadan, Winnipeg hirian, egin ziren uztailean. Bestalde, [European Police and Fire Games](#)" jokoak irailean egingo dira Espainian, Torreviejan.

Eusko Jaurlaritzaren ustez garrantzizkoa da Ertzaintzako agenteek nazioarteko kirol-proba horietan parte hartzea sustatzea; izan ere, gainerako agenteek kirola sarri egiteko pizgarri bat da eta, horrekin, agenteen gaikuntza, sasoa eta osasuna hobetzen dira.

Era berean, aukera bikaina da Ertzaintzaren irudi ona eta balioak atzerrian sustatzeko ere. Berez, jokoetan parte hartuko duten agenteek "*Euskadi – Basque Country*" nazioarteko marka jarrita Eusko Jaurlaritzak euren esku jarriko dituen kirol-ekipamenduak erabili ahal izango dituzte.

Lana eta Enplegua

LAN ETA ENPLEGU SAILAK ENPRESA-ELKARTEETAKO ETA SINDIKATUETAKO PRESTAKUNTZARAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA EGIN DU

Lan eta Enplegu Sailak 781.711 euroko dirulaguntzen deialdia egin du enpresaburuen elkarteentzat eta erakunde sindikalentzat, beren jarduera eremuetako berezko gaiei dagokienez, giza baliabideen trebakuntza hobetzeko prestakuntza-planak garatzeko.

Gaur Jaurlaritzaren Kontseilura bidali den agindu honen bidez, enpresa- eta sindikatu-erakundeen barneko prestakuntza-programak indartu, integratu eta koherenteak izan daitezen bultzatu nahi da, erakunde horiek tresna egokiak izan daitezen beren koadroak eta langileak kualifikatzeko, eta, horrela, egoera soziorabiala hobetzen lagun dezaten.

Laguntzaren zenbatekoa, guztira, 781.711 eurokoa izango da 2023. urterako, eta erakunde onuradunen bi kategorien artean banatuko da: % 60 erakunde sindikalentzat eta % 40 enpresa-erakundeentzat.

Hezkuntza

HEZKUNTZA SAILAK 999.000 EURO BIDERATU DITU LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN ENPRESETAKO EGONALDIETARAKO

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketaren esparruko Agindu bat. Agindu honek deialdia egiten du 2023-2024 ikasturtean, iraila-martxoa bitartean, Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua egingo duten Lanbide Heziketako ikasleentzako enpresako egonaldiako beketarako.

Era honetan, eta deialdi honen bidez, laguntza hau jasotzen duten ikasleek aukera izango dute, beste hiru hilabetez, Lantokiko Prestakuntza modulua (irailetik abendura bitartean) egin duten enpresan bertan egonaldia luzatu ahal izateko, aipaturiko modulua amaitu ondoren eta martxoan ebaluatu bitartean. Laguntza hauek norgehiagokako lehian deitzen dira, eta orotara 999.224,56 euroko diru-kopurua dute. Hezkuntza Sailak 482 laguntza emango ditu deialdi honen bidez, eta onuradun bakoitzak 1.800 euroko kopurua jaso ahal izango du gehienez (600 euro hileko). Laguntzak bere barne hartzen du, onuradunak hileko jasoko dituen 600 euroez gain, Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta ematea ere.

Deialdi honen onuradun izateko, ikasleak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Euskadiko Lanbide Heziketako heziketa-zikloren bateko bigarren mailan matrikulatua izatea 2023-2024 ikasturtean, eta irailetik-abendurako epean Lantokiko Prestakuntza modulua egitea.
- Enpresak interesa izatea ikasleak egonaldia bertan egiten jarrai dezan (urtarrila-martxoa bitartean).
- 30 urte baino gehiago ez izatea 2023ko abenduaren 31n (%33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonen kasuan izan ezik).

Lantokiko Prestakuntza modulua

Lanbide Heziketako ziklo guztiek dute, bigarren mailako ikasketa planean, Lantokiko Prestakuntza deritzon modulua. Enpresako ingurune errealean burutzen den prestakuntza praktikoa da hau, eta ikasten ari den heziketa zikloak dituen gainerako modulu guztiak gainditu ondoren egin ohi du ikasleak. Azken arrazoi hori tarteko edo ikasleak berak hala aukeratuta, zenbait ikaslek hurrengo ikasturteko iraila-abendua bitartean burutzen dute modulua.

Deialdi honen helburua da, egonaldia beste hiru hilabete ere luzatzeko aukera ematen duenez, Lanbide Heziketako ikasleen gaitasun profesionalak hobetzea, bai teknikoak eta baita zeharkakoak ere. Era horretan, ikasleei enplegarritasuna eta lanerako sarbidea ere hobetu egiten zaizkie, titulua eskuratzen dutenerako.

Hezkuntza

LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEEN ARTEAN KULTURA EKINTZAILEA SUSTATZEKO LAGUNTZAK IKASTETXEEI

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Lanbide Heziketarako agindu bat onartu du gaurko bilkuran. Agindu horren bidez laguntzak emateko deialdia egiten da 2023-2024 ikasturtean Lanbide Heziketako ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzeko.

117.000 euroko zenbatekoa duen agindu honen xedea da, itunpeko ikastetxeei laguntzak ematea Oinarrizko Mailako, Erdi Mailako edo Goi Mailako heziketa zikloetako 2. mailan dauden ikasleen artean kultura ekintzailea sustatzen duten proiektuak gara ditzaten 2023-2024 ikasturtean. Hiru urteko iraupena duten Oinarrizko Mailako Lanbide Heziketako zikloen kasuan, deialdi hau 3. mailako ikasleei zuzenduko zaie.

Laguntza hauen onuradun izateko, ikasleen artean kultura ekintzailea sustatuko duen programa bat garatu beharko dute ikastetxeek. Programa horrek, garatu beharreko jardueren artean, ikastetxe osorako enpresa-simulazioko proiektu bat jaso beharko du, ikasleek garatutako enpresa-simulazioko azpiproiektuz osatua.

Hezkuntza

985.000 EURO EUSKARAZKO IKASMATERIALAK SORTZEKO DIRULAGUNTZATAN

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran Hezkuntza sailburuaren proposamenez onartu du, unibertsitate aurreko irakasmailetarako euskarazko ikasmaterialak diruz laguntzeko deialdia egiten duen Agindua (EIMA deialdia). Deialdi honek 985.000 euroko diru kopurua du.

EIMA deialdiak, unibertsitate aurreko mailetako curriculumen araberako euskarazko ikasmaterialak laguntzen ditu diruz, hiru modalitatetan:

EIMA 1: euskarazko ikasmaterial inprimatuen edizio-kostuak. 500.000 euro

EIMA 2.0: euskarazko ikasmaterial digitalak. 400.000 euro

EIMA 4: euskarazko ikasmaterial inprimatuen sorkuntza. 85.000 euro

Euskara hutsean sorturik eta prestaturik dauden ikasmaterialak laguntzen ditu deialdi honek. Hala ere, eta salbuespen gisa, beren ezaugarrien arabera, euskaraz eta erdaraz dauden ikasmaterialak ere bildu ahal izango dira laguntza-deialdi honetara, hala nola, A ereduan euskara irakasteko metodoak, hiztegi elebidun edo eleanitzak. EIMA 1 modalitateak itzulpenak eta egokitzapenak ere onartuko ditu.

Hezkuntza

IKASTETXEETAKO GIROA EUSKALDUNTZEKO DIRULAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran onartu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2023-2024 ikasturtean eta itunpeko ikastetxeen eskola-eremuan, euskararen erabilera bultzatzeko asmoz dirulaguntzak ematen dituen Agindua. Deialdi honek 190.000 euroko zenbatekoa du.

Deialdi honen xede nagusia da ikasleen artean euskaraz hizkuntza-gaitasuna eta bat-bateko jariakortasunari bultzada ematea, eskola-giroan euskararen erabilera sustatzearekin batera. Beraz, honako hauek izan daitezke helburu hori hartuta deialdi honen bidez diruz lagundu ahal izango diren ekintza edo jarduerak:

- Ikastetxeetan hizkuntzaren ahozko erabilera egoera ez formaletan bultzatzeko jarduerak, eskola-giroa euskalduntzeko asmoz egiten diren saio eta jardueren bitartez: eskola antzerkigintza, bertso-lanketa, kantagintza, irratigintza, bideogintza, podcastak, ipuin kontalaritza eta ikasleen ahozko adierazpena hobetzeko asmoz eskolara gonbidatuak ekartzea.
- Euskararen erabilera sustatzeko helburuarekin ikasgelaz kanpo eginiko jarduerak. Barne hartzen dira guraso, irakasle ez diren langile zein irakasleentzat antolaturiko jarduerak, horien helburua ikasleen erabilera areagotzea bada.
- Euskal giroan bizipena eskaintzeko asmoz antolatutako egonaldiak. Gutxienez bi gaueko iraupena izan behar dute diruz lagunduak izateko. Hezkuntza Sailak kudeatzen dituen Euskal Girotze Barnetegietan egiten diren egonaldiak berariaz lagunduak direnez, ez dira diruz lagunduko deialdi honetan.
- Ikastetxeen arteko truke-irteerak, horien helburua euskal kultura, hizkuntza zein gizarte-giro desberdinen arteko ezagutza eta hurbilketa areagotzea bada.

Jarduera hauek 2023-2024 ikasturtean burutu beharko dira.

Osasuna

2023-2027 ALDIRAKO ADIKZIOEN PLANAREN BIDEZ, KONTSUMO ETA JOKABIDE ADIKTIBOAK ATZERATU EDO SAIHESTU NAHI DIRA, BAITA HORIEN ONDORIOAK MINIMIZATU, PREBALENTZIA ETA DESBERDINTASUNAK MURRIZTU ETA ESTIGMA BORROKATU ERE

- Eusko Jaurlaritzak gaur onartu duen plana Euskadik adikzioei aurre egiteko lau hamarkadatan bultzatzen duen zortzigarren plana da
- Lehentasuneko 58 ekintza zehazten ditu Euskadi osasuntsuagoa eta sentsibilizatuagoa lortzeko, substantziekiko adikzioen zein jokabide adikzioen ondoriozko arriskuen aurrean

“Substantzien kontsumoaren eta jokabide adikzioen aurrean Euskadi osasuntsuagoa eta sentsibilizatuagoa lortzea”. Horixe da Eusko Jaurlaritzak gaur onartutako **2023-2027 aldirako Adikzioen VIII. Planaren** helburu nagusia. Plan horrek helburu hori datozen lau urteetan lortzeko lehentasuneko 58 ekintza zehazten ditu, eta substantzien kontsumoak eta adizioak aintzat hartzeaz gain, substantziarik edo portaerarik gabeko adikzioak ere hartzen ditu kontuan.

Uztailean onartutako Euskadiko Osasun Planean ezarritako oinarrien arabera, Adikzioen Planak, izaera horretako zortzigarrenak, jarraipena ematen dio euskal erakundeek abian jarritako **adikzioei eta drogamendekotasunei aurre egiteko lanean egindako lau hamarkadako ibilbideari**, eta, bestalde, eragileen arteko sareko eta sektore arteko lan koordinatua sakontzen du, betiere osasun publikoaren, ekitatearen eta giza eskubideen ikuspegitik.

Gotzone Sagardui Osasuneko sailburuak azaldu duenez, dokumentuak bost emaitza-helburu nagusi ezartzen ditu, plana indarrean dagoen bitartean lortu nahi diren aurrerapenak adierazten dituztenak: Euskadiko biztanlerian **kontsumo eta jarrera adikzioen hasiera saihestea edo atzeratzea; horien prebalentzia gutxitzea**; sortzen dituzten **kalteak minimizatzea**; adikzioekin lotzen diren osasunaren arloko **desberdintasunak murriztea**; eta horiekin lotzen den **estigma gutxitzea**.

Helburu horiek lortzeko, gainera, beste bost helburu instrumental planteatzen dira, urte hauetan garatu beharreko politika, programa eta jarduketegi buruzko lehentasunak bideratzeko gida gisa:

- **Portaera osasungarriak sustatzen dituzten** eta substantzien kontsumoa eta jokabide adikzioak desnormalizatzen laguntzen duten **inguruneak aktibatzea**, haien erabilgarritasuna eta eskaintza murrizteko egitura-neurriak barne. Arreta berezia jarriko zaie familia, eskola, lan eta komunitateko esparruei.

- **Osasuna eta prebentzioa sustatzeko programak indartu eta hobetzea**, bizitzaren bilakaeraren ikuspegitik (esku-hartzeak bizi-etapa bakoitzaren berezko beharretara egokituz) eta pertsonen kapitala eta baliabide emozionalak indartzeko ahaleginetik.
- **Gizarteratzeko laguntza- eta babes-zerbitzuak indartzea eta hobetzea**, ekitatearen ikuspegitik eta egoera zaugarrian dauden pertsonen arreta berezia eskaintzearen bidetik.
- Adikzioen arloko **ezagutzak eta berrikuntzak garatzea eta hedatzea**.
- Adikzioen esparruan **sektore arteko ekintza eraginkorragoa finkatzea**.

Era berean, Osasuneko sailburuak aditzera eman du **generoaren ikuspegia** zeharkako eta lehentasunezko elementu gisa sartu dela plan osoan, eta plana egiteko prozesuan hainbat erakunde eta instituziotako **70 pertsonak baino gehiagok hartu dutela parte**, baita eraginpean dauden pertsonen, haien familiek eta bestelako gizarte- eta komunitate-eragileek ere.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 21.000 EUROKO DIRULAGUNTZA EMANGO DIO IGNACIO ALDEKOA KULTURA ETXEARI BERE FUNTSA HORNITU EDO BERRITZEKO

Gobernu Kontseiluak gaur onartu duena Europar Batasunak finantzaturako Next Generation EU Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan liburutegietako funtsak hornitzeko edo berritzeko dirulaguntza da. Kultura eta Hizkuntza Politika sailak 2022ko irailean egin zuen liburutegietako funtsak hornitzeko edo berritzeko laguntzetarako deialdia. 575.460 euroko deialdi hartatik 20.981 euro banatu gabe geratu ziren eta orain dirulaguntza hori Arabako Foru Aldundiari emango zaio Ignacio Aldekoa Kultura Etxea liburutegi publikoko funtsa hornitu edo berritzeko. Izan ere, "Ignacio Aldekoa Kultura Etxea" da Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen Estatuko Administrazio Orokorraren titulartasuneko liburutegi bakarra eta Arabako Foru Aldundia da bere kudeaketaren arduraduna.

Liburutegiak honako baldintza hauek bete beharko ditu bere funtsa hornitzerakoan:

- Emandako zenbatekoaren pareko paperezko liburu erosketara egitea, gutxienez.
- Erositako liburuen % 50 gutxienez gaztelaniaz izan beharko da. Gainerakoak euskaraz izan daitezke. Gainera, % 10 bideratu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegokoak ez diren atzerriko hizkuntza ofizialetako liburuak erosteko.
- Erosketetan, irakurketa errazeko liburuak eta/edo letra handiko liburuak sartu beharko dira.
- Erositako liburuak bildumaren katalogo bibliografikoan sartu beharko dira 2023ko urriaren 31 baino lehen, eta gutxienez 5 urtez egon beharko dira bertan.
- Materiala, ahal dela, hurbileko liburu-dendetan erostea.

Next Generation EU

Covid-19ak eragindako kalteak arintzeko helburua dute Next Generation EU funtsek. Aparteko aukera ematen dute errekonberazio-plan espezifikoak hedatzeko eta pandemiak inbertsioan eta jarduera ekonomikoan duen eraginari aurre egiteko. Helburu hori lortzeko neurriak sei zutabetan daude egituratua, eta horien artean daude, besteak beste, trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala eta hazkunde-eredu adimendun, jasangarri eta integratzaile bat, honako hauek barne hartzen dituena: kohesio ekonomikoa, enplegua, produktibitatea, lehiakortasuna, ikerketa, garapena eta berrikuntza.

Turismoa, Merkataritza eta Kontsumoa

TURISMOAK EUSKAL EKONOMIAN DUEN GERO ETA GARRANTZI HANDIAGOAK ETA MERKATARITZAREN BEHARREZKO ERALDAKETAK MARKATZEN DUTE 2030EKO EUSKADIKO TURISMO ETA MERKATARITZAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Javier Hurtado Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuak gaurko Gobernu Kontseiluan aurkeztu du **2030eko Turismo eta Merkataritzako Plan Estrategikoa**. Estrategia hori “euskal turismoak eta merkataritzak hamarkada honetan izango dituzten erronkei eta desfioei aurre egiteko bide-orria da. Bi zeharkako sektore horiek lotura estua dute elkarren artean, baina oso agertoki desberdinetatik abiatzen dira eta erantzun bereziak behar dituzte”.

Sailburuak azaldu duenez, turismoa “une korapilatsu hauetan, **garrantzi handiko motorra da euskal ekonomiarako**. Hala izaten jarrai dezan eta etorkizunean eragin handiagoa izan dezan lan egingo dugu, betiere turismo-eredu jasangarri, errespetagarri, orekatu eta lehiakor batetik. Era berean, 2030eko Turismo eta Merkataritzako Estrategiaren bidez, **erronka handiko une batean aurre egin behar diogu euskal merkataritzaren eraldaketa sakonari**. Erronka horien artean daude kontsumo-ohituretan gertatzen ari diren aldaketen ondoriozkoak eta eraldaketa digitalaren, ingurumenekoaren eta sozioekonomikoaren ondoriozkoak. 2030eko Turismo eta Merkataritzako Estrategiak zeharkakoak diren eta haien artean oso desberdinak diren bi sektoreri erantzuten die. Bi sektore horiek Euskal Autonomia Erkidegoko barne-produktu gordinaren % 18 hartzen dute eta enpleguaren % 25 —zuzenean 240.000 familia ari dira sektore horietan lanean—.”

Euskal Autonomia Erkidegoko 2030eko Turismo Estrategia

Euskal Autonomia Erkidegoko 2030eko Turismo Estrategian agerian geratzen da Euskadik turismo jasangarriaren hiru alderdien alde —ingurumena, gizartea eta kultura, eta ekonomia— duen konpromiso irmoa, Garapen Jasangarriaren Helburuarekin bat eginik. Horretarako, **Estrategiak 4 ardatz, 16 ildo estrategiko eta 32 proiektu ditu oinarri**. Helmuga, industria, marketina eta gobernantza dira palanka-ardatzak.

Helmuga 4 ildo estrategikoren inguruan hedatzen da: lurraldearen garapen jasangarrirako mekanismoak formulatzea; aktibo turistikoak sustatzea; produktu turistikoak garatzea eta nabarmentzea; eta bisitariarekiko arreta eta elkarrekintza hobetzea.

Industria ere 4 ildo estrategikoren inguruan hedatzen da: euskal autonomia erkidegoko turismoaren arloko enpresa-sareari etengabe laguntzea, eraldaketa digitalaren eta berrikuntzaren aldeko apustuarekin; enpresa-garapena, ekintzailatza eta inbertsioak sustatzea; jasangarritasuna, erantzukizuna eta etika integratzea; eta, azkenik, talentua erakartzea, atxikitzea eta garatzea.

Marketina lurraldearen irudia eta marka finkatzean oinarritzen da, **Euskadiko Marketin Turistikoaren Estrategiaren** babesarekin. Gainera, sustapena bi publikori zuzentzen zaio. Batetik, merkaturatzaileei eta bitartekariei, eta, bestetik, azken publikoari, xede-publikoaren interesetara egokitutako merkaturatze eta sustapen segmentatuaren bidez.

Gobernantza giltzarria da lurraldeko jarduera turistikoaren lidergo partekatuan, lau jardun-ildoren bidez. Lehena, gobernantza turistikoaren eredia finkatzea da. Horretan garrantzi handia dute **Europako funtsek, helmuga eraldatzeko eragile diren aldetik. Funts horiek dagoeneko 86 milioi ekarri dizkiote Euskadiri turismoaren arloan**. Bigarrena, sareetan parte hartzea eta itun estrategikoak indartzea da. Hirugarrena, sinplifikazioa eta arauzko garapena da. Eta, laugarrena, **Euskadiko Adimen Turistikoaren Sistemaren etengabeko** hobekuntza eta bilakaera da. “Euskadin punta-puntako proiektu integral gisa garatu eta ezarri dugu, eta 2022an aurkeztu eta gauzatu dugu. Eredu hori ezagutza kudeatzeko tresna gisa finkatu behar dugu, sektoreari nahiz administrazioei erabakiak hartzen lagun diezaien”.

Elementu horiek guztiek etika turistikoarekin lotzen den beste elementu garrantzitsu bat ere barne hartzen dute; **Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa**. Kode horrek Turismoaren Mundu erakundearen abala du, eta Euskadi arlo horretan aitzindaria izan da. Prestakuntza- eta ikuskapen-prozesu zorrotz baten ondoren, 620 enpresa baino gehiago atxiki zaizkio, “eta horrek agerian uzten du turismo-sektoreak konpromisoa handia duela berritzen jarraitzearekin eta jasangarritasunean eta erantzukizunean aurrera egiten jarraitzearekin”.

2030eko Euskal Merkataritzaren Estrategia

Merkataritzak 3 trantsizio kontuan hartzen dituen testuinguru batean egin behar die aurre erronkei: **ingurumen-trantsizioa, trantsizio soziodemografikoa eta trantsizio digitala**. Kontsumo-ohituren aldaketek markatzen dute trantsizio hori, eta baliabideen digitalizaziorako, berrikuntzarako eta orotako kanaletarako joera du.

2030eko Merkataritzaren Estrategia **merkataritza berritzailea, digitala, lehiakorra eta jasangarria** lortzeko apustu argia da, eta **14 ekimenetan eta 6 eraldaketa-bektoretan oinarritzen da**, beste merkataritza-trantsizio batera begira. Aipatzen diren lehen bi bektoreak dira eraldaketa horren jomuga: **enpresa eta hiri-espazioa**.

“**Hiri-ekonomiaren kontzeptu berri** baten alde egiten dugu, **hiriaren ikuspegi estrategikoa nahi dugun merkataritza-ereduarekin** integratuz. Azterketek frogatzen dute hirietako jasangarritasunak laguntzen duela merkataritzaren, ostalaritzaren eta lotutako beste zerbitzu batzuen onurak hobetzen. Hiri gizatiartuagoak, efizienteagoak eta jasangarriagoak sortzeak, halaber, indartu egiten du merkataritzak gure herrien eta hirien kohesioan betetzen duen rola”. Hirugarren bektorea **giza kapitala da, pertsonak aldaketaren eragile diren aldetik**. “Aldaketa disruptiboko une honetan, eskumenen, adinaren eta

belaunaldi-erreleboaren kudeaketan eta enpleguaren kalitatean sakondu behar dugu”.

Laugarren bektorea **ezagutzaren kudeaketa** da, eta berrikuntzaren eskutik dator bultzada eraldatzailea. Horretan, beraz, funtsezkoa da **Euskadiko Merkataritzaren Behatokiaren** zeregina, “etengabe egokitu eta hobetu behar dugun zeregina. Kontsumitzaileen portaera sozialaren eta komertzialaren informazio-arrastoa ezagutzeak lagundu behar digu merkataritza-politikak egokitzen”.

Ezagutzaren kudeaketa, halaber, **berrikuntza komertzialeko Hub** berri batean garatzen da. Hub hori lagungarria izango da ekintzaileak, ingeniariak, garapen-erakundeak eta -gizarteak merkataritza-berrikuntzako proiektuen inguruan lotuko dituen ekosistema sortzeko.

Horretarako, **beste komunikazio bat** beharko da —estrategia horren bosgarren bektorea— eta sektorea gaztetzea eta eraldatzea erraztuko duen sektorearen irudi berria ahalbidetuko duten kode eta eduki komunikatiboak sortuko dira.

Eta, azkenik, seigarren bektorea **governantzarekin lotzen da**, turismoarekin gertatzen zen bezalaxe. Lehenik eta behin, **Euskadiko merkataritzaren berriazko esparru arautzaile eguneratua** beharko da. Gaur egun, merkataritza elektronikoaren, digitalizazioaren eta jasangarritasunaren gorakadaren aurreko esparru arautzailea dugu. Hartara, kontsumo-ohituretan izandako aldaketetara egokituko den legerian lan egin behar da, betiere epe luzera begira eta legeria berriaren barruan.

Bigarrenik, **Sailak Merkataritza Zuzendaritzarako dituen baliabideak indartzea eta optimizatzea** da eraldatzen ari den sektore bati laguntzeko funtsezko elementuetako bat. “Horiek indartzearen bidetik, soilik, ireki daitezke kudeaketa-eredu ausart eta berritzaile baterako alternatiba errealistak. Egitura aldetik zeharkakoak diren laguntzak edukitzeaz gain —hala nola merkataritza-bulego teknikoak, federazioak, elkarteak edo ganberak—, egiturari behar besteko indarra eman beharko zaio, 2030eko Merkataritzaren Estrategia modu fidagarrian, anbizio handiz eta merkataritza-sektoreak behar duen espiritu eraldatzailearekin aplika dadin”.

Seguridad

EL GOBIERNO VASCO APOYA, CON 20.000 EUROS, A LAS Y LOS AGENTES DE LA ERTZAINITZA QUE PARTICIPAN EN COMPETICIONES DEPORTIVAS INTERNACIONALES

- Este tipo de competiciones facilitan, gracias al deporte, el intercambio de experiencias entre agentes de policía y cuerpos de extinción de incendios de todo el mundo
- El objetivo del Gobierno Vasco apoyando la participación de agentes de la Ertzaintza es estimular la camaradería entre los servicios públicos de seguridad y motivar el mantenimiento de una buena forma física y profesional

El Consejo de Gobierno ha analizado, en la reunión de hoy, la orden económica de 20.000 euros que permitirá al Gobierno ayudar a sufragar los gastos de las y los agentes de la Ertzaintza que deseen participar en los juegos deportivos internacionales que se organizan para competir entre los cuerpos de policía y extinción de incendios de todo el mundo.

Las y los agentes de la Ertzaintza, habitualmente, compiten tanto en los juegos mundiales como en los europeos, acumulando gran número de medallas. El objetivo es facilitar, gracias al deporte, un intercambio de experiencias entre agentes de policía e integrantes de los cuerpos de bomberos y bomberas de todo el mundo para estimular la camaradería entre los servicios públicos de seguridad, motivar el mantenimiento de una buena forma física y profesional, etc.

2023, año de europeos y mundiales

Los juegos mundiales se celebran cada dos años, mientras que los europeos tienen una cadencia anual. Este año, los "[World Police and Fire Games](#)" se celebraron en el mes de julio en Winnipeg, Canadá. Por su parte, los "[European Police and Fire Games](#)" se celebrarán en setiembre en la localidad española de Torreveja.

El Gobierno Vasco considera importante promocionar la participación de las y los agentes de la Ertzaintza en este tipo de pruebas deportivas internacionales porque su proyección sirve, además, de acicate y estímulo para que el resto de las y los agentes practique deporte de manera habitual y, con ello, mejoren su capacitación, forma física y estado de salud.

Igualmente, es una excelente ocasión para promocionar la imagen positiva de la Ertzaintza en el exterior, así como sus valores. De hecho, las y los agentes que participen, lo podrán hacer con el equipamiento de ropa deportiva que pone a su disposición, también, el Gobierno Vasco con la marca internacional "*Euskadi - Basque Country*".

Trabajo y Empleo

**EL DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO CONVOCA
SUBVENCIONES PARA FORMACIÓN EN ORGANIZACIONES
EMPRESARIALES Y SINDICALES**

El Departamento de Trabajo y Empleo convoca subvenciones por un total de 781.711 euros dirigidas a asociaciones empresariales y organizaciones sindicales para el desarrollo de planes formativos dirigidos a mejorar la cualificación de sus recursos humanos en temas propios de sus ámbitos de actividad.

Mediante esta orden, elevada hoy a Consejo de Gobierno, se pretende impulsar el fortalecimiento, la integración y la coherencia de los programas internos de formación de las organizaciones empresariales y sindicales, de cara a convertirlas en instrumentos idóneos para la cualificación de sus cuadros y personal, fomentando de este modo su contribución a la necesaria mejora de la situación sociolaboral.

El importe total de la ayuda para este año 2023 asciende a 781.711 euros que se distribuirá entre las dos categorías de entidades beneficiarias, destinándose el 60% a las organizaciones sindicales y el 40% a las empresariales.

Educación

EL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN DESTINA 999.000 EUROS PARA LA ESTANCIA EN EMPRESA DEL ALUMNADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan becas para la estancia en la empresa del alumnado de Formación Profesional que curse el módulo de FCT (Formación en Centro de Trabajo) durante el periodo septiembre-marzo, en el curso académico 2023-2024, y sea evaluado en marzo de 2024.

De esta manera, mediante esta convocatoria, al alumnado beneficiario se le da la posibilidad de prolongar durante tres meses más su estancia en la empresa en la que ha realizado el módulo FCT (entre septiembre y diciembre de 2023), una vez finalizado éste y hasta que sea evaluado.

Estas ayudas, que se convocan en régimen de concurrencia competitiva, cuentan con un importe global de 999.224,56 euros. El número de ayudas que concederá el Departamento de Educación asciende a 482 con un importe total máximo de 1.800 euros netos por beneficiario (600 euros mensuales). La concesión de la ayuda incluye, además de los 600 euros mensuales que percibirá la persona beneficiaria, el alta en el Régimen de la Seguridad Social. El alumnado beneficiario de esta convocatoria deberá cumplir los siguientes requisitos:

- Estar matriculado en segundo curso de un ciclo de Formación Profesional de Euskadi en el curso académico 2023-2024 y tener que realizar el módulo de FCT (Formación en Centro de Trabajo) en el periodo de septiembre-diciembre.
- Contar con el interés de la empresa para la realización de la estancia en la misma por otro periodo de tres meses (enero-marzo).
- No tener más de 30 años a 31 de diciembre de 2023 (salvo en el caso de las personas que accedan con una discapacidad igual o superior al 33%).

Módulo FCT

Todas las enseñanzas de FP incluyen, en su segundo año, el módulo denominado Formación en Centro de Trabajo (FCT). Se trata de una fase de formación práctica que se desarrolla en un entorno real de empresa y que, como regla general, el alumnado lo realiza una vez superados todos los módulos profesionales del ciclo formativo que cursa. Debido a esta última circunstancia, o por elección propia, parte del alumnado realiza el módulo FCT en el periodo septiembre-diciembre del siguiente curso.

Esta convocatoria, que alarga la estancia en la empresa hasta un máximo de tres meses más, sigue el propósito de que el alumnado de FP mejore sus competencias profesionales, tanto técnicas como transversales, para así

también mejorar su empleabilidad y el acceso al mercado laboral, una vez obtenga la titulación.

Educación

SUBVENCIONES PARA EL FOMENTO DE LA CULTURA EMPRENDEDORA ENTRE EL ALUMNADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

El Consejo de Gobierno, a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado en su reunión de hoy la Orden que convoca subvenciones para el fomento de la cultura emprendedora entre el alumnado de Formación Profesional, en el curso académico 2023-2024.

Esta Orden, por un importe global de 117.000 euros, tiene por objeto convocar ayudas a centros privados concertados para el desarrollo de proyectos que fomenten la cultura emprendedora entre el alumnado que esté estudiando segundo curso de un ciclo formativo de Grado Básico, Grado Medio o Grado Superior de Formación Profesional durante el curso 2023-2024, en dichos centros. En aquellos ciclos de Formación Profesional Básica de 3 años de duración, esta convocatoria estará dirigida exclusivamente al alumnado de tercer curso.

Los centros beneficiarios de estas ayudas deberán desarrollar un programa que promueva la cultura emprendedora entre al alumnado. Este programa deberá incluir entre las actividades a desarrollar un proyecto de simulación empresarial para todo el centro, formado a su vez por sub-proyectos de simulación empresarial desarrollados por el alumnado.

Educación

985.000 EUROS PARA LA CREACIÓN DE MATERIAL DIDÁCTICO EN EUSKERA

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas para la producción de materiales didácticos en euskera de niveles educativos no universitarios (convocatoria EIMA). Esta convocatoria cuenta con un importe económico de 985.000 euros.

La convocatoria EIMA subvenciona la creación de los citados materiales didácticos en euskera según los currículos de los cursos preuniversitarios, en tres modalidades:

EIMA 1: para costes de edición de materiales didácticos impresos. 500.000 euros

EIMA 2.0: para materiales didácticos digitales en euskera. 400.000 euros

EIMA 4: para creación de material didáctico impreso. 85.000 euros

Esta convocatoria subvenciona los materiales didácticos creados y elaborados íntegramente en euskera. No obstante, y con carácter excepcional, y en función de sus características, también podrán acogerse a esta convocatoria de ayudas los materiales didácticos en euskera y castellano, tales como métodos de enseñanza del euskera en el modelo A, diccionarios bilingües o plurilingües. La modalidad EIMA 1 también contempla traducciones y adaptaciones.

Educación

AYUDAS PARA LA EUSKALDUNIZACIÓN DEL ÁMBITO ESCOLAR

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Educación, la Orden por la que se convocan ayudas dirigidas a los centros docentes concertados para la euskaldunización del ámbito escolar durante el curso 2023-2024. Esta convocatoria cuenta con un importe de 190.000 euros.

El objetivo principal de esta convocatoria es impulsar la competencia lingüística y la fluidez verbal en euskera entre el alumnado, así como fomentar el uso del euskera en el ambiente escolar. Por tanto, las acciones o actividades subvencionables a través de esta convocatoria podrán ser las siguientes:

- Actividades dirigidas a fomentar el uso oral de la lengua en los centros educativos en situaciones no formales, a través de actividades dirigidas a la euskaldunización del ambiente escolar: teatro escolar, *bertsolarismo*, canto, radiodifusión, videocreación, podcasts, sesiones de cuentacuentos e invitados que ayuden a mejorar la expresión oral del alumnado.
- Actividades realizadas fuera del aula con el objetivo de fomentar el uso del euskera. Se incluyen las actividades dirigidas a padres, madres, personal no docente y profesorado cuyo objetivo final sea fomentar el uso del euskera del alumnado.
- Estancias organizadas con el fin de ofrecer una vivencia en ambiente euskaldun. Para ser subvencionados deben tener una duración mínima de 2 noches. Dado que las estancias en Centros de Afianzamiento Idiomático gestionados por el Departamento de Educación son objeto de apoyo específico, no serán subvencionables mediante esta convocatoria.
- Salidas de intercambio entre centros educativos, cuyo objetivo sea aumentar el conocimiento de la lengua y la cultura vasca y un acercamiento entre los diferentes ambientes sociales de los centros.

Estas actividades deberán realizarse durante el curso 2023-2024.

Salud

EL PLAN DE ADICCIONES 2023-2027 PRETENDE EVITAR O RETRASAR EL INICIO DE CONSUMOS Y CONDUCTAS ADICTIVAS, MINIMIZAR SUS EFECTOS, REDUCIR LA PREVALENCIA Y LAS DESIGUALDADES, Y COMBATIR EL ESTIGMA

- **Aprobado hoy por el Gobierno Vasco, es el octavo que impulsa Euskadi en cuatro décadas de abordaje de las adicciones**
- **Define 58 acciones prioritarias para lograr una Euskadi más saludable y sensibilizada ante los riesgos derivados, tanto de las adicciones con sustancia como de las comportamentales**

“Lograr una Euskadi más saludable y sensibilizada ante los riesgos derivados del consumo de sustancias y conductas adictivas”. Ése es el objetivo principal que persigue el **VIII Plan sobre Adicciones 2023-2027**, aprobado hoy por el Gobierno Vasco, y que define un total de 58 acciones prioritarias para alcanzar esa meta en los próximos cuatro años, contemplando tanto los consumos y adicciones con sustancia como las adicciones sin sustancia o comportamentales.

Alineado con las bases establecidas en el Plan de Salud de Euskadi aprobado en julio, el Plan sobre Adicciones, el octavo de esta naturaleza, da continuidad a **cuatro décadas de trayectoria en el abordaje de las adicciones y drogodependencias** por parte de las instituciones vascas, profundizando en el trabajo coordinado, intersectorial y en red entre los distintos agentes, y desde una clara perspectiva de salud pública, equidad y derechos humanos.

Según ha explicado la Consejera de Salud, Gotzone Sagardui, el documento establece cinco grandes objetivos de resultado, que indican los avances que se pretenden conseguir en el período de vigencia del plan: **evitar o retrasar el inicio de consumos y conductas adictivas** en la población de Euskadi; **disminuir su prevalencia**; **minimizar los daños** que originan; **reducir las desigualdades** en salud ligadas a las adicciones; y **reducir el estigma** asociado a las mismas.

Para lograrlos, se plantean, además, otros cinco objetivos instrumentales, como guía para orientar las prioridades en cuanto a las políticas, programas y actuaciones a desarrollar en estos años:

- **Activar entornos que promuevan comportamientos saludables** y contribuyan a desnormalizar el consumo de sustancias y las conductas adictivas, incluyendo medidas estructurales para reducir su disponibilidad y oferta. Con especial atención al ámbito familiar, escolar, laboral y comunitario.

- **Reforzar y mejorar los programas de promoción de la salud y prevención**, con perspectiva del curso de la vida (adaptando las intervenciones a las diferentes necesidades propias de cada etapa vital) e incidiendo en el fortalecimiento del capital y los recursos emocionales de las personas.
- **Fortalecer y mejorar los servicios de asistencia y apoyo a la inclusión social**, desde un enfoque de equidad y con especial atención a las personas en situación de vulnerabilidad.
- **Desarrollar y difundir conocimiento e innovación** en materia de adicciones.
- **Afianzar una acción intersectorial más efectiva** en el ámbito de las adicciones.

La Consejera de Salud ha destacado, asimismo, el hecho de que la **perspectiva de género** impregne, como elemento transversal y prioritario, todo el plan, que ha contado en su proceso de elaboración con la **participación de más de 70 personas** de distintas entidades e instituciones, así como personas afectadas, sus familias y otros agentes sociales y comunitarios.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO CONCEDERÁ UNA SUBVENCIÓN DE 21.000 EUROS A LA CASA DE CULTURA IGNACIO ALDEKOA PARA LA DOTACIÓN O RENOVACIÓN DE SU FONDO

La subvención aprobada por el Consejo de Gobierno está incluida en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia Next Generation EU, financiado por la Unión Europea. El Departamento de Cultura y Política Lingüística convocó en septiembre de 2022 ayudas para la dotación o renovación de fondos de bibliotecas. De la convocatoria de 575.460 euros quedó un remanente de 20.981 euros y ahora esa subvención se va a conceder a la Diputación Foral de Álava para dotar o renovar el fondo de la biblioteca pública *Casa de Cultura Ignacio Aldekoa*. Esta biblioteca es la única biblioteca de titularidad de la Administración General del Estado ubicada en Euskadi y la Diputación Foral de Álava es la responsable de su gestión.

La biblioteca deberá cumplir los siguientes requisitos en la provisión de su fondo:

- Realizar una compra en libros en papel al menos igual a la cantidad concedida.
- Como mínimo, un 50 % de libros adquiridos deberán ser en castellano. El resto podrán ser en euskera. Además, se podrá destinar un 10 % para adquisición de libros en lenguas extranjeras distintas a las oficiales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Será obligatorio incluir en las adquisiciones libros de lectura fácil y/o letra grande.
- Los libros adquiridos deberán incorporarse al catálogo bibliográfico de la colección antes del 31 de octubre de 2023 y deberán permanecer en él al menos 5 años.
- Comprar el material preferentemente en librerías cercanas.

Next Generation UE

Los fondos Next Generation EU tienen el objetivo de paliar los daños causados por la Covid-19, proporcionan una ocasión extraordinaria para desplegar planes específicos de recuperación y contrarrestar el impacto de la pandemia sobre la inversión y la actividad económica. Las medidas para alcanzar este objetivo se estructuran en seis pilares, entre los que se encuentran la transición ecológica, la transformación digital y un modelo de crecimiento inteligente, sostenible e integrador que incluye: cohesión económica, empleo, productividad, competitividad, investigación, desarrollo e innovación.

Turismo, Comercio y Consumo

EL PAPEL CRECIENTE DEL TURISMO EN LA ECONOMÍA VASCA Y LA NECESARIA TRANSFORMACIÓN DEL COMERCIO MARCAN EL PLAN ESTRATÉGICO DE TURISMO Y COMERCIO 2030 DE EUSKADI

El **Consejero de Turismo, Comercio y Consumo, Javier Hurtado**, ha presentado hoy en Consejo de Gobierno el **Plan Estratégico de Turismo y Comercio 2030**. Esta Estrategia es una “hoja de ruta para afrontar los retos y desafíos del turismo y comercio vascos en esta década. Dos sectores transversales y con una estrecha relación entre sí, pero que parten de escenarios muy diferentes y reclaman respuestas diferenciadas”.

Como ha explicado el Consejero, el turismo es, “en estos momentos complicados, **un motor importante para la economía vasca**. Vamos a trabajar para que lo siga siendo y amplíe su influencia en el futuro, desde un modelo de turismo sostenible, respetuoso, equilibrado y competitivo. Y con la Estrategia de Turismo y Comercio 2030 enfrentamos también una **transformación profunda del comercio vasco, en un momento de grandes desafíos** por los cambios en los hábitos de consumo y la transformación digital, medioambiental y socioeconómica. La Estrategia de Turismo y Comercio 2030 aporta respuestas a 2 sectores diferentes pero transversales, que suponen el 18% del PIB vasco y el 25% del empleo de Euskadi, con más de 240.000 familias directamente empleadas”.

Estrategia Vasca de Turismo 2030

La Estrategia Vasca de Turismo 2030 se caracteriza por el compromiso firme de Euskadi con el turismo sostenible en sus tres vertientes medioambiental, sociocultural y económica y alineada con los Objetivos de Desarrollo Sostenible. Para ello, la **Estrategia se basa en 4 ejes, 16 líneas estratégicas y 32 proyectos**. Los ejes palanca son el destino, la industria, el marketing y la gobernanza.

El destino se despliega en torno a 4 líneas estratégicas que son, la formulación de mecanismos para el desarrollo sostenible del territorio, la potenciación de activos turísticos, el desarrollo y puesta en valor de los productos turísticos y la mejora de la atención e interacción con el visitante.

La industria, con 4 líneas estratégicas, se configura en el apoyo continuo al tejido empresarial turístico vasco con una apuesta por la transformación digital e innovación; el fomento del desarrollo empresarial, emprendimiento e inversiones; la integración de la sostenibilidad, la responsabilidad y la ética y, por último, la atracción, retención y desarrollo del talento.

El Marketing, que se acompaña de la **Estrategia de Marketing Turístico de Euskadi**, se basa en la consolidación de la imagen y marca del territorio.

Además, la promoción se dirige hacia 2 públicos. Por un lado, a los comercializadores e intermediadores, y por otro, hacia el público final con una comercialización y promoción segmentada y adaptada a los intereses de público objetivo.

La gobernanza se erige como clave en el liderazgo compartido de la actividad turística del territorio por medio de cuatro líneas de actuación. Primero, la consolidación del modelo de gobernanza turística. En esto juegan un papel importante los **fondos europeos como motor de transformación del destino, fondos que ya han aportado 86 millones a Euskadi en materia de turismo**. Segundo, la participación en redes y el fortalecimiento de alianzas estratégicas. Tercero, la simplificación y desarrollo normativo. Y como cuarta línea, la evolución y mejora **continua del Sistema de Inteligencia Turística de Euskadi**, que conocemos como SIT. “Lo hemos desarrollado e implementado en Euskadi como un proyecto integral y puntero, que se ha hecho realidad y hemos presentado en 2022. Debemos afianzar este modelo como una herramienta de gestión del conocimiento que contribuya a la toma de decisiones, tanto del sector como de las administraciones”.

Todos estos elementos incorporan otro, no menos importante, relacionado con la ética turística y que confluye en **el Código Ético del Turismo en Euskadi**. Un Código avalado por la organización Mundial del Turismo y en el que Euskadi ha sido pionera. Son ya más de 620 las empresas adheridas tras un proceso exigente de formación y auditoría, “y eso revela el gran compromiso del sector turístico por seguir innovando y avanzando en sostenibilidad y responsabilidad”.

Estrategia Vasca de Comercio Merkataritza 2030

El comercio afronta retos en un contexto que abarca 3 transiciones, **medioambiental, sociodemográfica y digital** marcada por los cambios en los hábitos de consumo, que tiende a la omnicanalidad, la innovación y la digitalización de los recursos.

La Estrategia Merkataritza 2030 es una apuesta clara para lograr un **comercio innovador, digital, competitivo y sostenible** que **se basa en 14 iniciativas y 6 vectores** de transformación hacia una nueva transición comercial. Los dos primeros vectores a los que hace referencia son los espacios diana de esta transformación: **la empresa y el espacio urbano**.

“Apostamos por **un nuevo concepto de economía urbana**, integrando **la mirada estratégica urbana, con el modelo comercial que deseamos**. Los estudios demuestran que la sostenibilidad de las ciudades, contribuyen a mejorar los beneficios del comercio, la hostelería y otros servicios relacionados. Hacer ciudades más humanas, más eficientes y sostenibles influye, también, en el fortalecimiento del rol del comercio en la cohesión de nuestros pueblos y ciudades”.

El tercer vector **es el capital humano, las personas como agentes del cambio**. “En un momento de cambio disruptivo debemos profundizar en la gestión de las competencias, de la edad y el relevo generacional y en la calidad del empleo”.

Como cuarto vector está **la gestión del conocimiento**, con la innovación como impulso transformador. Y en esto es fundamental el papel del **Observatorio Vasco de Comercio** “que debemos adaptar y mejorar de continuo. El conocimiento de la huella informativa del comportamiento social y comercial de las personas consumidoras debe ayudarnos a ajustar las políticas comerciales”.

Y la gestión del conocimiento se desarrolla también en un nuevo **Hub de innovación comercial** que sirve para generar un ecosistema conectando a los emprendedores, las ingenierías, las instituciones y las sociedades de desarrollo, o la formación, en torno a proyectos de innovación comercial.

Y para todo ello, va a ser necesaria **una nueva comunicación**, quinto vector de esta Estrategia, creando códigos y contenidos comunicativos que propicien una nueva imagen del sector que favorezca su rejuvenecimiento y transformación.

Y, por último, el sexto vector, y al igual que en turismo, **es el que se refiere a la gobernanza**. En primer lugar, es necesario un **marco regulador específico y actualizado del comercio vasco**. Disponemos de un marco regulador previo al auge del comercio electrónico, de la digitalización y de la sostenibilidad como aspecto clave. Hay que trabajar, con el marco de una nueva legislatura y la vista a largo plazo, en una nueva legislación adaptada a los cambios en los hábitos de consumo.

En segundo lugar, un elemento clave para apoyar a un sector en transformación, es el **refuerzo y optimización de los recursos del Departamento para la dirección de comercio**. “Solo fortaleciéndolos se pueden abrir alternativas realistas a un modelo de gestión valiente e innovadora. Se trata no solo de contar con apoyos estructuralmente indirectos, como las oficinas técnicas de comercio, las federaciones, asociaciones o las Cámaras, sino de dotar a la estructura de una entidad suficiente para abordar la aplicación de la estrategia Merkataritza 2030 de manera solvente, ambiciosa y con el espíritu transformador real que necesita el sector comercial”.